

2021eko deialdia diru laguntzen ekintzaileei laguntzeko ENPRESA-IDEIA bat garatzeko (APEI)

NORI DAGO ZUZENDUTA:

Ekintzaileak, negozio-ideia bat izanik, jardueraren edozein arlotan, berau aztertu eta garatu nahi dutenak, berariazko arduraldi erregimenean, erakunde laguntzaileak ikuskaritzapean eta tutoretzapean. Lanbide-EEZk aurretiaz emango du eginkizun horietarako baimena.

ESKAKIZUNAK:

- a) EAEn errolatuta egotea eta benetan bizitzea. Baldintza horri eutsi beharko zaio, gutxienez, laguntza-prozesua amaitu arte.
- b) Langabezian egotea eta Lanbide-EEZn enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea. Ondorio horietarako, langabetzat hartuko da lanaldi partzialeko kontratu batekin eta gehienez ere % 30eko lanaldiarekin lan egiten duena.
- c) Ekonomia-jardueren gaineko zergan eta langile autonomoen araubide berezian aurreko urtean alta eman ez izana.
- d) Enpresa edo negozio berri bat edozein jarduera-arlotan garatzeko ideia bat izatea.
- e) Deialdi honetako 3. artikuluan aurreikusitako erakunderen baten aholkularitza- eta laguntza-prozesuan sartuta egotea.
- f) Aurreko deialdietan, enpresa-ideia bat garatzeko edo enpresa-jarduera berriak abian jartzeko laguntzen onuradun ez izatea (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ekintzaileei laguntzeko kudeatu dituen deialdietan jasota dauden laguntzak)

LAGUNTZA HORIEN ONURADUN IZATEKO, SUSTATZAILEEK KONPROMISO HAUEK HARTU BEHARKO DITUZTE:

- a) Bere enpresa-ideiaren azterketan eta garapenean bakarrik aritzea. (Sustatzaileak arduraldi eskusiboaren baldintza betetzen duela ulertuko da, baldin eta lanaldiaren % 30 baino gehiago edo 18 egun baino gehiago lanaldi osoan lan egiten ez badu diruz lagundutako aldi osoan. Ondorio horietarako, laneguntzat hartuko dira Gizarte Segurantzaren alta emandako egunak. Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, alta-egunak kontratatutako lanaldiaren ehunekoarekin biderkatzearen emaitza izango dira zenbatu beharreko egunak).
- b) Deialdi honen kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek definitutako enpresa-ideia sortzeko eta garatzeko aholkularitza- eta laguntza-jarduera guztietara joatea.
- c) Helburu bererako beste laguntzarik ez jasotzea.

ESKABIDEAREKIN BATERA, ZUZEN SINATURIK DAGOELA, HONAKO DOKUMENTU HAUEK AURKEZTU BEHAR DIRA:

- a) NANaren fotokopia.
- b) EAEko errola-ziurtagiria.
- c) Erakunde laguntzailearen ziurtagiria, eskatzaileak laguntza edota tutoretzako programan parte hartzen duela egiaztatzen duena; laguntza edota tutoretzako planean aurreikusitako jarduerak jasoko dira bertan, bai eta prozesuaren hasiera-data ere.
- d) Lan-bizitzari buruzko txostena, laguntza-prozesuaren hasiera-datan eguneratua.
- e) Ogasunarekiko zerga-betebeharrak beteta dauzkatela egiaztatzen duen ziurtagiria
- f) Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak beteta dauzkatela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- g) LANBIDEn lan-eskatzaile izena emanda egotea.

INFORMAZIO XEHETUA:

[EBAZPENA, 2021eko maiatzaren 26koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita ekintzaileei laguntzeko 2021eko dirulaguntza-deialdia](#)

https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2021/enta_apei_2021/web01-tramite/eu/

ESKAERA-INPRIMAKIA

https://www.euskadi.eus/contenidos/ayuda_subvencion/enta_apei_2021/procedures/proc_202152813531925/eu_def/adjuntos/ANEXO-III-EUS-2021-AMPLIADO.pdf

2021eko deialdia ENPRESA-PROIEKTU berriak abian jartzeko laguntzak (APEA)

NORI DAGO ZUZENDUTA:

Ekintzaileak, negozio-idea bat izanik, jardueraren edozein arlotan, berau aztertu eta garatu nahi dutenak, berariazko arduraldi erregimenean (1), erakunde laguntzaileak ikuskaritzapean eta tutoretzapean. Lanbide-EEZk aurretiaz emango du eginkizun horietarako baimena.

(1) *Sustatzaileak arduraldi eskusiboaren betekizuna betetzen duela ulertuko da, baldintza hauek betetzen baditu: diruz lagundutako aldi guztian lanaldi osoan 27 egun baino gehiago lan ez egitea edo lanaldiaren % 30 baino gehiago lan ez egitea. Ondorio horietarako, lan egindako eguntzat zenbatuko dira Gizarte Segurantzaren alta emanda egin dituen egunak. Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, zenbatu beharreko egunak hauek izango dira: alta-egunak bider kontratatutako lanaldi-ehunekoa.*

ESKAKIZUNAK:

- a) EAEn errolatuta egotea eta benetan bizitzea. Baldintza horri eutsi beharko zaio, gutxienez, laguntza-prozesua amaitu arte.
- b) Langabezian egotea eta Lanbide-EEZn enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea. Ondorio horietarako, langabetzat hartuko da lanaldi partzialeko kontratu batekin eta gehienez ere % 30eko lanaldiarekin lan egiten duena. Baldintza hori EIZn alta ematen den unean ere bete beharko da.
- c) Ekonomia-jardueren gaineko zergan eta langile autonomoen araubide berezian aurreko urtean alta eman ez izana.
- d) Enpresa edo negozio berri bat ezartzeko enpresa-bideragarritasuneko plan bat izatea, dagokion erakunde laguntzaileak laguntza-fasean baliozkotuko duena.
- e) Deialdi honetako 3. artikuluan aurreikusitako erakunderen baten aholkularitza- eta laguntza-prozesuan sartuta egotea.

LAGUNTZA HORIEN ONURADUN IZATEKO, SUSTATZAILEEK KONPROMISO HAUEK HARTU BEHARKO DITUZTE:

- a) Enpresa edo negozioa abian jartzeko lan eskusiboa egitea.
- b) Deialdi honen kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek definitutako enpresa edo negozioa ezartzeko aholkularitza- eta laguntza-jarduera guztietara joatea.
- c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematea, diruz lagundutako tutoretza- eta laguntza-prozesua amaitu eta gehienez ere 3 hilabeteko epean, negozioa abian jartzeko. Alta horren titularrak edozein forma juridiko hartu ahal izango du, baldin eta sustatzaileak egiaztatzen badu, hala badagokio, sozietate-harremana duela harekin, eta xede soziala bat badator tutoretzapeko proiektuarekin.

Ekintzaileek adierazitako epean EZN alta ematen ez badute, diru-laguntzaren bigarren ordainketarako eskubidea galduko dute.

- d) Enpresa-jarduera EAEn helbideratzea, sozialki eta fiskalki, eta lantokia bertan kokatzea.
- e) Xede bererako beste laguntzarik ez jasotzea.

ESKABIDEAREKIN BATERA, HONAKO DOKUMENTU HAUEK AURKEZTU BEHAR DIRA:

- a) NANaren fotokopia.
- b) EAEko errolda-ziurtagiria.
- c) Erakunde laguntzailearen ziurtagiria, eskatzaileak laguntza eta/edo tutoretzako programan parte hartzen duela egiaztatzen duena; laguntza eta/edo tutoretzako planean aurreikusitako jarduerak jasoko dira bertan, bai eta prozesuaren hasiera-data ere.
- d) Lan-bizitzari buruzko txostena, laguntza-prozesuaren hasiera-datan eguneratuta.
- e) Ogasunarekiko zerga-betebeharrak beteta dauzkatela egiaztatzen duen ziurtagiria
- f) Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak beteta dauzkatela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- g) LANBIDEn lan-eskatzaile izena emanda egotea.
- h) Enpresa edo negozio berri bat ezartzeko bideragarritasun-plana

INFORMAZIO XEHETUA:

[EBAZPENA, 2021eko maiatzaren 26koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita ekintzaileei laguntzeko 2021eko dirulaguntza-deialdia](#)

https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2021/enta_apea-2021/web01-tramite/eu/

ESKAERA-INPRIMAKIA

https://www.euskadi.eus/contenidos/ayuda_subvencion/enta_apea_2021/procedures/proc_2021527135498161/eu_def/adjuntos/ANEXO-III-EUS-2021-AMPLIADO.pdf

BETEKIZUN OROKORRAK:

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan behar dituzte.
- Dirulaguntzak itzultzeko dagozkion ordainketa guztiak eginak izan behar ditu.
- Zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrak ez jaso izana, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera edo Emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.
- Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.